

SILVER 1 Programa

Ikasleak

- Normalean zortzi eta bederatzi urte bitarteko haurrak izango dira. (Ez dute hamar urte beteko gabonak baino lehen).
- Gehienak urtebetez gurekin ikasten izan dira.
- Zenbait hitz simple idazteko gai dira.
- Hizkuntz-eskuduntzei dagokionez ia A1 mailan daude.

Ikastaroaren nondik norakoak

Klaseek bi ordu eta erdiko iraupena izango dute, astean bitan (guztira 75 ordu). Ikastaroan, ikasleen adinari egokituta, lau trebetasunak landuko dira. Ikasleek hizkuntza klasean benetazko tresna gisa erabilia eta zentzumen anitzeko ariketa motibatzaileen bidez ikasiko dute. Alfabetizazioa eta ahoskeraren garapena metodo foniko sintetiko baten bidez emango da.

Ikastarorako materiala

Happy Street 1 Ikasle Liburua eta Ariketa Liburua. Jolly Phonics Eskuliburua alfabetizazio eta ahoskera trebetasunen garapenerako erabiliko da.

Ebaluaziorako ariketak

- 1.Hiruhilekoa: Ikasgelako hizkuntza.
- 2.Hiruhilekoa: Nire buruaren inguruan.
- 3.Hiruhilekoa: Ikasleen interakzioa.

Behelaldean zehazten diren **ikasketa helburuak** CEFRek (Common Framework of References for Languages) emandako ideietan oinarritzen dira eta ikasleek ikastaroan zehar izango duten garapenaren aurreikuspenean oinarritzen dira.

Mintzamena: Ahozko interakzioa

Agurrak erantzuteko gai naiz, solasaldia hasiz edo erantzunez esaera desberdinak erabiliz, adibidez, <i>kaixo, ondo nago, eskerrik asko, eta zu? Agur, ostegunerarte, eta mesedez</i> eta <i>eskerrik asko</i> esateko gai naiz momento egokietan.
Ikasgelan behar dudan zerbaiten inguruan galdetzeko gai naiz, adibidez, <i>arkatza har dezaket, mesedez?, komunera joan naiteke, mesedez?</i> .
Atsegin eta desatsegin ditudan gauzen inguruan galdera sinpleak erantzuteko eta zein den nire kolorerik, zenbakirik (1etik 10era), janaririk edota animalirik gustokoena esateko gai naiz.
Galdera sinpleak erantzun ahal dut hitz bakarra edo bi hitz erabiliz galdera ezaguna dudanean eta ikus-laguntza badut, adibidez, <i>Zein kolorekoak dira zure begiak? Marroiak (dira)</i> .
Nire ikaskideekin elkar eragiteko gai naiz joko sinpleetan baldin eta modelo bat jarraitzen badut (adibidez, nire liburuko istorio bat entzun) eta niri dagokidan papera praktikatu (adibidez, ikaskideei egingo dizkiedan galderak errepikatu).

Ahozko ekoizpena

Ikasgelan diren pertsonen izenak eta gauzak izendatzeko gai naiz, adibidez, <i>neska, mutila, irakaslea, koaderno, karpeta, arkatza, goraizeak, atea, lehioa, mahaia, aulkia, erlojua...</i>
Aldez aurretik praktikatzeko aukera izan badut, bizpahiru esaldi erabiliz klasean, ikaskideen aurrean, irudi bat deskribatzeko gai naiz, adibidez, <i>(hau) nire arreba da. Bere izena Ane (da). Hamar urte ditu.</i>
Adjetibo simple sorta bat erabiltzeko gai naiz (koloreak, zenbakiak, handia/txikia, hotza/beroa, ona/txarra) objektu desberdinak deskribatzeko, adibidez, <i>liburu urdin bat (da)</i> .

Galderak egin edota erantzuteko gai naiz abestiren bat kantatuz.
Ikastaroko liburuan azaltzen diren gaietan aurkitzen diren gauza zehatzen izenak gogoratzeko gai naiz, adibidez, <i>animaliak, janaria, aurpegiko atalak, etxea eta jostailuak...</i> beti ere testuingurua garbia bada eta ikus-laguntza badut.
Gauzak non dauden adierazi ahal dut, adibidez, <i>xagua kaxan dago, poltsa mahai ondoan dago...</i>
Ingelesezko 43 soinuak ezagutu eta ekoizteko gai naiz.

Entzumena

Ikasgelan ematen diren argibide sinpleak jarraitzeko gai naiz, adibidez, <i>eseri, eskuak gora, hartu zure arkatza, ireki zure liburua...</i>
Entzumen ariketa sinpleak burutzeko gai naiz, hala nola, hiru aukeretatik irudi zuzena aukeratzea edo taula batean informazio sinplea idatzi.
Esulanak nola burutu ulertu eta joku sinpleak jokatu ahal dut ikus-laguntzarekin.
Istorioak jarraitzeko gai naiz baldin eta irudiak edo mimika bezalako ikus-laguntza badut.

Irakurmena

Alfabetoko letrak irakurtzeko eta identifikatzeko gai naiz metodo foniko sintetikoa erabiliz.
Ikasgelan eta liburuan diren hizkuntz helburu simple batzuk irakurtzeko gai naiz.
Hitz sinpleak eta zenbait liburu sinple (Jolly Phonics Level 1) eta nire mailarako (oinarrizko A1) graduatutako irakurgaiak irakurtzeko gai naiz.

Idazmena

Alfabetuko hizkiak, bere soinuaren baitan, idatz ditzaket.
Hitz eta esaldi sinpleak idazteko gai naiz nire dekodifikazio gaitasunak erabiliz.
Arbelatik zenbait hitz eta esaldi kopia dezaket.
Hitz sinpleak eta esaldi laburrak idazteko gai naiz nitaz espero dena dakidanean eta jarraitzeko modelo bat dudanean.

Hizkuntz gaitasunak

Jendeari nire pertsonaren inguruko informazioa emateko gai naiz, baldin eta hauek garbi hitzegiten baditate eta ni ulertzeko laguntza ematen badidate.
Ikasitako gaien inguruan esaldi laburrak egiteko gai naiz, beti ere, esan behar dudana lehenago praktikatzen badut.